

GETXO BONO 2023 KANPAINAREN LABURPENA

Xedea:	GETXO BONO programaren eta atxikitzeke baldintzak arautzea, ondasunen kontsumoa eta zerbitzuen prestazioa sustatzeko merkataritza-establezimenduetan eta hiri-jarduerarekin lotutako zerbitzuetan.
Onuradunak:	Getxoko udalerrian establezimendu fisikoa (lokala) duten hiriko jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduak, eta/edo kirol- eta turismo-aisialdiko enpresen kasuan, beren jardura normalean udalerrian garatzen dutenak. Sektore onuradunak (ikus I. eranskina)
Baldintzak:	<p>a) Getxoko Udalaren establezimenduen datu-basean alta emanda egotea, baldin eta haien jardura oinarri hauen I. eranskinean jasotako talderen batean sartuta badago.</p> <p>b) EJZn alta emanda egotea.</p> <p>c) Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Getxoko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.</p> <p>d) Fakturak egitea, Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 FORU DEKRETUaren arabera.</p>
Diruz lagun daitekeen kontzeptua:	<ul style="list-style-type: none"> • 10 euroko deskontua erosketa baten gainean > 40 € • 5 euroko deskontua erosketa baten gainean > 20 €
Diruz lagundu daitekeen aldia, kanpaina aktiboa:	<ul style="list-style-type: none"> • 1: martxoaren 20tik apirilaren 29ra • 2: urriaren 16tik azaroaren 25era
Bonu kopurua herritar bakoitzeko:	Balio bakoitzetik 3, kanpainaren aldi bakoitzean. Aplikazioak berak ezartzen du muga, NAN kontuan hartuta.
Bonuak kudeatzeko modua:	Establezimenduetan bertan, aplikazioaren bidez. Getxo Bono 2023 kanpainaren aldi bakoitzean, establezimenduko trukatzeko bonuen gehieneko muga ezarriko da, kanpainari atxikitako establezimendu-kopuruaren arabera.
Eskabideak: izapidetzea, dokumentazioa eta aurkezteko epea.	<p>Hauk dira establezimenduak Getxo Bono 2023 programara atxikitzeke epeak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen epea: BAO n argitaratzen denetik otsailaren 19ra arte • Bigarren epea: irailaren 11tik 24ra <p>Lehen aldi honetako atxikipenak Getxo Bono 2023 kanpainaren bi aldietarako balio du. Ez da berriro eskatu behar, baina kanpainaren bigarren aldi bat egin nahi dutenentzat beste</p>

	<p>atxikipen-aldi bat egongo da.</p>
<p>Azpi-sektore desberdinentzako informazio interesgarria</p>	<p>a) Akademiak eta gimnasioak. Kasu horretan, honako arau hauek bete beharko dituzte: establezimendu bakoitzaren ohiko jardueraren hileko kuotei ez zaizkie aplikatuko bonuak. Aparteko jarduerari aplikatuko zaizkie, hala nola campusei (Getxo Bonoko 1. aldia udako jardueretarako, Getxo Bonoko 2. aldia Gabonetako jardueretarako) eta/edo bezero berriak sartzera bideratutako sustapen-ekintzei.</p> <p>b) Taxiak; horietan, Taxi-tourretan bakarrik aplikatu ahal izango da deskontua.</p> <p>c) Farmaziak: ez dira aplikagarriak sendagaiak erosteko.</p> <p>d) Estankoak: ez dira aplikagarriak tabako-erosketetan.</p> <p>e) Optikak: gastu-eragiketa kanpainaren datetan erregistratu beharko dute. Ez da eskaerarik onartuko.</p>
<p>Betebeharrak:</p>	<p>a) Establezimenduko lehentasunezko lekuan iragartzea programari atxikitua egotearen adierazgarria, dagozkion publizitate-materialak jaso eta jarritz.</p> <p>b) Establezimenduek aktiboki eskainiko dizkiete deskontu-bonuak 16 urtetik gorako bezeroei, bonuak agortu arte.</p> <p>c) Erabat debekatuta dago deskontu-bonuen erabiltzaileei bereizkeria edo tratu desberdina ematea.</p> <p>d) Erosleei inoiz ez itzultzea eskudirurik.</p> <p>e) Establezimenduek nahitaez gorde beharko dute erosketa-txartelaren edo fakturaren kopia bat, NANaren zenbakiarekin eta erosketa horretan trukaturako deskontu-bonu(ar)en identifikazio-zenbaki(ar)ekin batera. Dokumentu horiek gorde egin beharko dira, erakunde laguntzaileak eta/edo Getxoko Udalak egiaztatu eta kontrolatu ahal izan ditzan.</p> <p>f) Plataformara sartzeko gakoak arretaz zaintzea, behar ez bezala erabil ez daitezen, eta beste pertsona batzuei ez emateko konpromisoa hartzea.</p> <p>g) Kanpainaren amaieran, inkesta bat betetzea establezimenduaren ikuspegitik kanpainaren azken balorazioa egiteko.</p> <p>K) Atxikitako establezimenduek deskontu-bonu horiei buruzko informazioa emango diete bezeroei; beraz, udalerritik kanpoko ikuspena ziurtatuta dago.</p>
<p>Bonuak egiaztatzea:</p>	<p>Erakunde laguntzaileak bonuak egiaztatzean gorabeherarik antzeman ez gero, erakunde laguntzailea harremanetan jarriko da eta e-mail bat bidaliko du (eskaera egiten den unean entregatutako e-mailera) eta 5 egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko. Egin ezean, bonua berriro zirkulazioan jarriko da.</p>